

2012KO URRIAREN 11N GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hamaika.

HILABETEA: Urria.

URTEA: Bi mila eta hamabia.

HASIERAKO ORDUA: gaueko bederatziak hamar gutxiagotan.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Koldo Agirre Mujika

BILDUAK: M^a Mar Celaya González

Aitor Aldasoro Iturbe

Alfonso Segade González

Josi Insausti Mujika

ETORRI GABEA: Unai Baztarrika Otegi

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2012ko irailaren 24ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- ZERBITZUAK ESLEITZEA. Arrisku egoeran dauden gazte eta adingabekoentzat kaleko hezitzaileen esku-hartze programa eta arrisku egoeran dauden adingabekoen familientzat esku-kartze familiarraren programa esleitzeko proposamena.

Ezagutzera eman da, 2012ko urriaren 9an Kontratazio Mahaiak egindako proposamena:

“AURREKARIAK

1.- Gobernu Batzordeak, 2012ko ekainaren 18an erabaki zuen deialdi publikoa egitea, baldintza plegu administratiboa y teknikoa onartuz, prozedura irekiaren bitartez eta publizitatearekin arrisku egoeran dauden gazte eta adingabekoentzat kaleko hezitzaileen esku-hartze programa eta arrisku egoeran dauden adingabekoen familientzat esku-hartze familiarraren programa kontratatzeko.

2.- Deialdia, 2012ko ekainaren 25ean GAOean argitaratu zen eta 2012ko uztailaren 16an proposamenak aurkezteko epean, bakarrik LORRATZ ELKARTEAK aurkeztu zuen proposamena.

3.- Irailaren 3an, ekintza publikoan ireki zen B kartazala, hain zuzen ere, automatikoki ezin ebaluatu daitezkeen gainerako balioespen irizpideei dagokien dokumentazioarena. Automatikoki ebaluatzen diren irizpideei baino ponderazio handiagoa dagokionez, balio-judizio horien balorazioa Udalaren lau Gizarte Langileek osatutako adituen batzorde batek egin du.

4.- Urriaren 8an eguerdiko 12,00etan C kartazala, proposamen ekonomikoaren ireki da, ondorengo emaitzarekin:

Ingurune Irekiko Heziketa Programa: 87.500 €koa gehi B.E.Z.

Prezio honetan zerbitzuak sortzen dituen jardueretarako gastuak barne daude eta urtero 3.000€ bideratuko dira.

Esku-hartze familiarren Programa:

- 1.- Ikerketa eta proiektua egiteko ordua: 60€
- 2.- Bakarkako psikoterapia ordua: 60€
3. Terapeuta bakarrarekin egindako familia psikoterapia saioa: 80€
- 4.- Bi terapeutekin egindako familia-psikoterapia saioa: 100 €
- 5.- Familia-hezitzailearen ordua: 27€

Prezio hauetan ez dago B.E.Z. sartuta.

5.- C kartazalaren dokumentazioa egiaztatu ondoren eta esleipen irizpide desberdinek baloratu ondoren, emaitza ondorengoa da:

Ingurune irekiko Programa / Programa de educación en medio abierto

Esku-hartze proiektua / Proyecto de intervención: **53 p.**

- Laneko metodología / Metodología de trabajo: 30 p.
- Ebaluaketa / Evaluación: 8 p.
- Proposatutako giza eta material baliabideak / Medios materiales y personales propuestos: 15p.

Estruktura organizatiboa eta funtzionala/Estructura organizativa y funcional: **15p**

Borondatezko hobekuntzak / Mejoras voluntarias: **5 p.**

- 3. langilea gizarte hezitzailea / 3er educador social

Esku-hartze familiarren programa

Esku-hartze proiektua: **33 p.**

- Laneko metodología: 15 p.
- Ebaluaketa: 8 p.
- Proposatutako giza eta material baliabideak: 10p.

Estruktura organizatiboa eta funtzionala: **5 p.**

Borondatezko hobekuntzak : **2 p.**

- Adin-txikikoen terapeuta

Lorraztekin duen egoitza programaren beharretarako uzten da

Horren ondorioz, kontratazio Mahaiak Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. LORRATZ ELKARTEAri, Beasaingo udalerrian arrisku egoeran dauden gazte eta adingabekoentzat kaleko hezitzaileen esku-hartze programa eta arrisku egoeran dauden adingabekoen familientzat esku-hartze familiarraren programa esleitzea, baldintza plegu eta berak aurkeztutako eskaintzaren arabera.

Bigarren. Esleipena prezio honetan egiten da.

Ingurune Irekiko Heziketa Programa: 87.500 €koa gehi B.E.Z.

Prezio honetan zerbitzuak sortzen dituen jardueretarako gastuak barne daude eta urtero 3.000€ bideratuko dira.

Esku-hartze familiarraren Programa:

- 1.- Ikerketa eta proiektua egiteko ordua: 60€
- 2.- Bakarkako psikoterapia ordua: 60€
3. Terapeuta bakarrarekin egindako familia psikoterapia saioa: 80€
- 4.- Bi terapeutekin egindako familia-psikoterapia saioa: 100 €
- 5.- Familia-hezitzailearen ordua: 27€

Prezio hauetan ez dago B.E.Z. sartuta.

Hirugarren. Kontratuaren iraupena BI (2) URTEKOA izango da kontratu administratiboa sinatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita. , eta luzatzeko aukera izango da, baldin eta bi alderdietako batek aldez aurretik salaketarik jarriko ez balu, gutxienez, hiru hilabeteko aldez aurreko abisuarekin. Luzatzekotan, urtebeteko alditan egingo da, eta, nolana ere, kontratuaren iraupen osoa, luzapenak barne, ez da lau urte baino gehiagokoa izango. Luzapena espresuki adierazi beharko da eta eskumena duen organoak erabakia hartu beharko du.

Laugarren. Adjudikaziodunari adieraztea, hamar laneguneko epean ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar duela:

- Jarduera ekonomikoaren gaineko zergan alta emanda egotea eta zerga betebeharretan eta gizarte segurantzaren eguneratuta egotearen agiriak.
- **5.838 €ko** behin betiko fidantza eratztea.

Bosgarren. Adierazitako dokumentazioa aurkeztutakoan, bost laneguneko epean, behin betiko esleipena egingo da, horretarako Alkateari baimena emanaz. Jarraian kontratu administratiboa sinatu beharko da.

3.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera gaueko bederatzietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.